

{ datorrena } Iñaki SOTO

# «Woke» lubakiaren sakona erakutsi du Jane Fondak

**D**uela gutxi, SAG aktoreen sindikatuak Jane Fondari bere ibilbide osoagatik saria eman zion. Bere diskurtsoa oso ondo argudiatuta eta idatzita dago, inspiratzailea da. Hedabide gehienek Fondak «woke» terminoaz egiten duen defentsa azpimarratu zuten, hurkoarekiko enpatia eta kezka gisa ulertuta. Baina diskurtsoa benetan biribila da.

«Woke» terminoari dagokionez, «awake»-tik dator, «esnatu» hitzetik. Bere erabilera politikoaren jatorria XX. mendearen hasierako beltzen protestak omen dira. Zehazki, Huddie Ledbetterren abesti batek «Alabama kontuz ibili eta esna egon» esaten du. Abestia «landlord» delakoei zuzendua dago, hau da, jabea. Arrazaren eta etxebizitzaren, alegia, zapalkuntzen arteko lotura 1938ko abesti batean zegoen.

Izan ere, arrazakeriaren aurka egotea, trans pertsonen eskubideak defendatzea edo larrialdi klimatiakoaren kezka ez dira soldata-igoerak eskatzearekin edo etxebizitzarako eskubidearekin bateraezinak. Hori egiteko gai ez denak ez lizkioke bere akatsak ez-kerrari egotzi behar. «Sindikatuaren defendatzaile suetsua naiz. Bizkarra babesten digute, komunitatean kokatzen gaituzte eta boterea ematen digute. Komunitateak boterea esan nahi du, eta hori oso garrantzitsua da orain. Langileen boterea erasotzen ari dira eta komunitatea ahultzen ari dira», azaldu zuen Fondak.

Belaunaldi-kontua ere ez da, Fondak 87 urte baititu, eta bere adinaren erdia duen batek baino pentsamendu garaikideagoa badu, akatsa ez da berea. Norbaitek tertulia batean Fondaren bilakaera positiboa gogoratu zuen, noizbait bere bizitzan *hippya* izan zelako. Diskurtso honek eta bere praktika politikoak erakusten dute hortik ere atera daitekeela. Hainbatentzat, autoritarismoaren atea topatzea zailagoa dirudi.

Donald Trumpekin, AEBen egoera larria da, eta Fondak argi du ekiteko unea dela: «Ez gaitezen engaina gertatzen denaren larritasunaz. Ausartak izateko unea da», esan zuen. «Ikusi al duzue inoiz apartheidari, eskubide zibilei edo Stonewalli buruzko dokumentalik, eta galdetu al diozue zuen buruari borroka horiekin bat egiteko adorerik izango ote zenuket? Ez diogu gehiago geure buruari galdetu behar. Hau da gure dokumentalaren unea, eta ez da saiakera bat», gehitu zuen. Bere ustez, «ez dugu isolatu behar, baizik eta komunitatean mantendu, ahulenei lagundu eta etorkizunaren ikuspegi inspiratzailea proiektatu».

Fondak, Pearl Cleage idazlearen hitzak aipatuz, hitzaldia edertasuna, maitasuna, itxaropena eta egia bezalako balio handiak goratuz amaitu zuen.

Jane Fondaren ustez, «ez dugu isolatu behar, baizik eta komunitatean mantendu, ahulenei lagundu eta etorkizunaren ikuspegi inspiratzailea proiektatu (...). Ausartak izateko unea da»

Pepe Mujicak bizitzaren zentzuari buruz esaten duenarekin lotzen da Fondaren diskurtsoa: «Triki-mailua bizitzari zentzua ematea da. (...) Helburu bat aurkitzea da kontua, dela familian, dela adiskidetasunean, dela mundu hobe baten aldeko borrokan».

Bizitzan jasan dituen bazterkeriek norabide hori indartu dute, aitzakiarik gabe. «Emakume zuri, ospetsu eta pribilegiatua naiz. Esperientzia horiek niri eragin bazidaten, nola eragingo zieten aitorpen eta baliabide berberak ez dituztenei?», hausnartu zuen berriki.

Testuinguru erreakzionario horretan biziko dugu aurtengo Martxoak 8, gaurko eguna. Fondaren edozein esaldi sinatu daiteke horri aurre egiteko. •